

KOSTUEN EGITURA

Enpresa guztiek kostu mota desberdinak dituzte. Gure enpresaren kostu espezifikoak hurrengoak dira:

Kostu finkoak:

Izenak berak adierazten duen bezala, gastu finkoak hilerok mantentzen direnak dira, pazienteen bolumena edozein dela ere. Tipologia honetan daude:

- **Langile-gastuak:** klinikako taldekideekin zerikusia duten gastuak dira. Konkretuki soldatak eta langile guztien gizarte-segurantza. Gure langileak bi taldeetan daude banatuta: bulegariak eta gure produktua ekoizten den fabriketako langileak. Bulegariak 1300 euro kobratzen dute hilabetero eta 5 bulegari ditugu gure bulegoetan, beraz, bulegariak soldatak ordaintzeko 6500 euro behar ditugu hilabetero. Gainera, langile bakoitzaren segurantza haien soldataren %25.5a kostatzen du hilabetero, hau ordaintzeko, 1657.5 euro behar izango ditugu horiek ordaintzeko. Beste aldetik, fabriketan lan egiten duten 31 langile ditugu eta bakoitzak 1250 euro kobratzen dituzte hilabetero, beraz, fabriketako langileen soldatak ordaintzeko 38750 euro behar izango ditugu. Langile hauen segurantza ordaintzeko 9881.25 euro behar ditugu.
- **Egitura-kostuak:** zentroak sortzen dituen gastuak. Adibidez, gure bulegoen alokairua edo hipoteka, hornidurak (ura, argia, telefonoa, Internet, etab.) edo klinikako aseguruak. Beste gastu batzuk egongo dira ere, hala nola, hondakin klinikoena eta laneko arriskuen prebentzioarena. Gainera, kategoriatan horren barruan sartzen dira gestoriako eta papergintzako kostuak. Erabiliko dugun fabrikaren alokairua ordaintzeko 1400 euro behar ditugu hilabetero.
- **Merkataritza-kostuak:** gastu finkoetako beste batzuk pazienteak erakartzeko eta tratamenduak ixteko dira, publizitatea eta hartz-marketina. Hau da, postontzietan banatzeko kanpainetara edo Interneteko iragarkietara bideratutako inbertsioa. Gure publizitatea Postivo enpresak darama. Haiekin akordio bat dugu: publizitate kanpainak eta gero jakinaraztuko digute zeintzuk dira haien zerbitzuen kostuak.

Kostu aldakorrak:

Kostu aldakorrei dagokienez, jarduera mailaren arabera proportzionalki handitu edo murriztuko diren gastuak dira. Edo, bestela esanda, tratamendua gauzatzearekin lotutako gastu guztiak. Batez ere, honako hauek hortz-klinika bati lotutako kostu aldakorrak dira:

- Tratamendu bakoitzean erabilitako materiala
- Laborategiko gastuak

Egiturazko gastuak ezin ditugu zehaztu hilabete bakoitzaren gastuak oraindik ez dakizkigulako. Fakturak ikusi eta gero jakin ahal izango dugu.

Gizarte kostuak:

Gizarte-kostua ondasunaren ekoizpenean erabilitako baliabideen kostu alternatiboak eta ondasun horren ekoizpenak beste edozein ekoizpen jardueratan eragin dezakeen ongizate galerak edo kostuen inkrementuak osatzen dute.

Kostu hauek ezin ditugu zehaztu. Etorkizunean, galera sozial garbiari soldata gordinari gehituko diogu onura sozial garbiarieta soldata gordinetik kenduko diogu gizarte kostuak kalkulatzeko.

Ingurumen kostuak:

Kostu horiek ingurumen-degradazioaren sorrerarekin, detekzioarekin, erremedioarekin eta prebentzioarekin lotuta daude, beraz ezin ditugu zehaztu. Etorkizunean kalkulatu ahal izango ditugu formula honen bidez: ingurumena zaintzeko eta kontserbatzeko identifikatzen diren jardueren kostuaren elementuen batura.

Hasierako inbertsioa:

Hasierako inbertsioa 56531.25 euro izan behar da bakarrik kostu finakoak kontuan hartuta. Oraindik zehaztu ezin dituztegun hainbat gastu kalkulatu behar ditugu, konkretuki, merkataritza kostuak, kostu aldakorrak, gizarte kostueak eta ingurumen kostuak